



## Europar Batasuneko Kontseiluaren balorazioak Brusela, 2020ko ekainaren 19

Europar Batasuneko Kontseilu telematiko honetan aztertu diren gai nagusiak 2021-2027 Urte Anitzeko Finantza Esparrua (MFP) eta "Next Generation EU" (2021-2024) izeneko suspertze edo berreskuratze Funts berria izan dira. Europako Batzordearen bi proposamenak, maiatzaren 27an aurkeztutakoak, pakete berekotzat hartu behar dira orain negoziazioaren ondorioetarako, berreskuratze-funtsa MFPren proposamen berrian sartuta baitago.

EBko buruzagiek proposamen horiei buruz eztabaidatu duten lehen aldia izan da, baina Charles Michel Europar Batasuneko Kontseiluko presidentek lan handia egin du eremua prestatzen laguntzeko eta estatu guztiek proposamenen zati guztiak uler ditzaten ahalbidetzeko.

Estatu kideen arteko lehen ikuspegi trukaketa horren ondoren, Charles Michelek Kontseilu Europarraren ezohiko bilera deituko du uztailean Bruselan, MFPren eta Berreskuratze Funtsetan gaineko konpromiso orokorra lortzeko. Behatzaileak eta profesionalak ados daude akordio bat lortzeko bilera fisiko bat behar dela esatean; izan ere, bideokonferentziak ez dira hain eraginkorrak, eztabaida paraleloak izateko aukera mugatua delako eta konfidentziasuna murrizten delako.

### **Berreskuratze Funtsetan eta MFPri buruzko testuingurua**

Europako Batzordeak maiatzaren 27an aurkeztu zuen Next Generation EU izeneko berreskuratze tresna edo funts berri bat sortzeko proposamena, 750.000 milioi eurokoa. Aldi baterako funts hori 2021etik 2024ra egongo da martxan, eta 2021-2027 Urte Anitzeko Finantza Esparruan (MFP) sartuta dago; zeinentzat 1,1 bilioi euro aurreikusi dira. Batzordeak 2021-2027 aldirako planteatutako finantzaketa, guztira, 1,85 bilioi eurokoa da: 750.000 milioi euro Next Generation EU (2021-2024) tresnarako + 1,1 bilioi 2021-2027 MFP tresnarako. Proposamen horiek Europako Parlamentuarekin eta estatu kideekin negoziatu behar dira, eta, MFPren kasuan, estatuetako parlamentuekin.

Next Generation EUren 750.000 milioi euroak (500.000 milioi diru-laguntzetan eta bermeetan eta 250.000 maileguetan) hiru zutabe hauetan inbertituko dira:

### **1. Estatu kideei inbertsioak eta erreformak egiten laguntzea**



Lehen zutabe horrek  
(aurreikusitako finantzaketa osoaren % 87,3) Batzordearen gomendioei eta politikei jarraituko dieten estatu kideen inbertsioak eta erreformak ditu ardatz. Horretarako, honako tresna hauek ditu:

- 560.000 milioi euroko Berreskuratze- eta Erresilientzia-mekanismo berri batek finantza-laguntza eskainiko du inbertsio eta erreformetarako, bereziki trantsizio ekologiko eta digitalarekin eta ekonomia nazionalen erresilientziarekin lotutakoak, EBren lehentasunekin erlazionatuta. Mekanismo hori Europako Sei hilekoan integratuko da. 310.000 milioi euro arteko diru-laguntzak izango ditu eta 250.000 milioi euro arteko maileguak eman ahal izango ditu. Laguntza estatu kide guztientzat egongo da eskuragarri, baina kaltetuenengan kontzentratuko da, eta erresilientzia-beharrak handiagoak diren lekuetan.

- 50.000 milioi euroko osagarria kohesio-politikaren egungo programei (MFP 2021-2027 aldiko kohesio-politika osorako 373.200 milioi dira), une honetatik 2022ra bitartean, REACT-UE ekimen berriaren esparruan. Krisiaren ondorio sozioekonomikoen larritasunaren arabera esleituko da, gazteen langabezia-maila eta estatu kideen oparotasun erlatiboa barne.

- Bidezko Trantsiziorako Funtza 30.000 milioi eurora arte indartzeko proposamena (MFP 2021-2027 aldi osorako 40.000 dira), estatu kideei neutraltasun klimatikorako trantsizioa bizkortzen laguntzeko.

- 15.000 milioi euroko errefortzu bat Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtserako (MFP 2021-2027 aldi osorako 90.000 dira), lagungarri izan dadin landa-eremuek Europako Itun Berdearekin bat datozen egiturazko aldaketak egin ditzaten eta Landatik Mahairako eta Biodibertsitaterako Estrategia berrietan ezarritako asmo handiko helburuak lor ditzaten.

## **2. EBko ekonomia berrindartzea, inbertsio pribatuak sustatuz**

Bigarren zutabea ( % 7,5) sektore pribatuan inbertitzeko pizgarriari buruzkoa da. Funtz horiek Europako Inbertsio Bankuak (EIB edo BEI) kudeatuko ditu.

- Kaudimenari Laguntzeko Tresna berri batek baliabide pribatuak mugiaraziko ditu, sektore, eskualde eta herrialde kaltetuenetako enpresa europar bideragarriei berehala laguntzeko. 2020tik aurrera funtzionatu ahal izango du, eta 26.000 milioi euroko aurrekontua izango du, 300.000 milioi euro desblokeatzeko, sektore ekonomiko guztietako enpresen kaudimenari laguntzeko eta etorkizun garbiago, digitalago eta erresilienteago baterako prestatzeko.



- InvestEU Europako  
inbertsio-programaren zuzkidura 15.300 milioi euroraino handitzea, EB osoan  
proiektuetan inbertsio pribatuak mugiarazteko.

- InvestEUren barruan integratutako Inbertsio Estrategikoen Tresna berri bat, 150.000 milioi eurorainoko inbertsioak erakartzeko helburuarekin, sektore estrategikoen erresilientzia, bereziki trantsizio ekologiko eta digitalari lotutakoak, eta barne-merkatuko funtsezko balio-kateak bultzatzeko, Next Generation EUren 15.000 milioi euroko ekarpenari esker.

### 3. Krisiaren irakaspenak aplikatzea

Hirugarren zutabeak (guztizkoaren % 5) krisiaren ikasgaietan oinarritutako inbertsioak ditu.

- EU4Health osasun-programa berria, osasun-segurtasuna indartuko duena eta etorkizuneko krisietarako prestatuko gaituena, 7.700 milioi euroko aurrekontuarekin (MFP 2021-2027 aldi osorako, 9.400 dira).

- 2.000 milioi euroko errefortzu bat rescEU EBko Babes Zibileko Mekanismoarako (MFP 2021-2027 aldi osorako 3.100 dira), zeina zabaldu eta indartu egingo baita, Batasuna etorkizuneko krisien aurrean prestatzen eta haiei erantzuna ematen gaitzeko.

- 13.500 milioi euroko osagarria Horizonte Europarako (MFP 2021-2027 aldi osorako, 94.400 dira), zein indartu egingo den osasunaren, erresilientziaren eta trantsizio ekologiko eta digitalaren arloetan funtsezko ikerketa finantzatzeko.

- Europako munduko bazkideei laguntza ematea kanpo-ekintzarako 15.500 milioi euro gehigarriren bidez (MFP 2021-2027 aldi osorako 118.205 dira), laguntza humanitarioa barne.

**Funtsaren oinarri politikoak** hauek dira: Europako Itun Berdea, merkatu bakarra indartzea eta aro digitalera egokitzea, eta guztiontzako susperraldi justu eta inklusiboa.

Next Generation EUren 1. zutabearen barruan, **Espainiarako aurreesleipena** 140.340 milioi euro dira (77.618 diru-laguntzetan eta 63.122 maileguetan), honela banatuta:

- Errekuperazio eta Erresilientzia mekanismoa: 124.740 milioi euro (61.618 diru-laguntzetan eta 63.122 maileguetan)



- REACT-UE: 13.000  
milioi euro diru-laguntzetan

- Bidezko Trantsiziorako Funtsa: 1.300 milioi euro diru-laguntzetan

- Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa: 1.300 milioi euro diru-laguntzetan

Funtsaren oinarria Errekuperazio eta Erresilientzia Mekanismoa da, eta bertatik Espainiak 61.618 milioi euro jasoko ditu diru-laguntzetan (horientzat ez da kofinantziazio nazionalik eskatuko) eta 63.122 milioi maileguetan. Bigarren herrialderik onuradunena da soilik Italiaren atzetik. Proposatutako banaketa-gakoak kontuan hartzen ditu biztanleria, per capita BPGa eta azken bost urteetako langabezia-tasa, EBko batez bestekoarekin alderatuta (2015-2019).

Mekanismo hau Europako Seihilekoan sartuko da, hau da, ekonomia- eta aurrekontu-politikak koordinatzeko zikloan, estatu kideek politika horiek EBren helburu eta arauetara egokitu ditzaten. Diru-laguntzen (eta maileguenak, eskatzen badira) onuradun izan ahal izateko, estatu kideek beren Berreskuratze eta Erresilientzia Plan Nazionalak aurkeztu beharko dituzte, Erreformako Programa Nazionalen eranskin gisa (Estatuek apirilean, Seihilekoaren esparruan, aurkezten dituzten egiturazko erreforma-programak, hazkundera eta lehiakortasuna sustatzera bideratuak), eta Europako Batzordeari zuzendu. Berreskuratze- eta Erresilientzia Plan Nazionalak urtero aurkeztu ahal izango dira, apirilaren 30a baino lehen, 2022ra arte. Ahalik eta azkarren laguntza jasotzeko, Batzordeak estatu kideak bultzatzen ditu Planaren lehen zirriborroa aurten aurkez dezaten, urriaren 15a baino lehen, aurrekontu nazionalaren proiektuarekin batera.

### **Europar Batasuneko Kontseiluaren aurretik herrialdeen jarrerak Europako Batzordearen proposamenei buruz**

Herrialde gehienak susperraldi edo berreskuratze Funtsaren alde badaude ere, aldeak daude Berreskuratze- eta Erresilientzia Mekanismoaren zenbait alderdiri buruz, eta, bereziki, diru-laguntzen eta maileguen arteko proportzioari, diru-laguntzak banatzeko gakoari (biztanleria, per capita BPGa eta langabezia-tasa) eta horiek eskuratzeko baldintzei buruz.

Herrialde "frugalak" (Herbehereak, Austria, Danimarka eta Suedia) dira eszeptikoenak.

Herbehereek ez dute diru laguntzarik izatea nahi eta, izatekotan, erreforma estrukturalekin lotura estua edukitzea nahi dute. Danimarkak, bere aldetik, hasierako



jarrera leundu du, eta orain diru-laguntzak emateko prest agertu da, baina Batzordeak aurreikusitakoa baino neurri txikiagoan.

Finlandiari dagokionez, Finlandiako Parlamentuak Funtsa errefusatu du, Finlandiako exekutiboaren jarrera babestuz, zein Funtsaren zenbatekoa murriztearen alde agertu den, eta diru laguntzak murriztearen alde, maileguei pisu handiagoa emateko.

Visegrado taldeko herrialdeak (Hungaria, Polonia, Txekiar Errepublika eta Eslovakia) kezkatuta daude banaketa irizpideekin. Zuzkidura herrialdeka esleitzeko, BPGren bilakaerari azken bost urteetako (2015-2019) langabezia-tasari baino pisu handiagoa ematea nahi dute -EBko batez bestekoarekin alderatuta-.

Oro har, hegoaldeko herrialdeak eta bereziki Frantzia, Espainia, Italia eta Portugal dira proposamenarekin gehien bat datozenak; izan ere, proposamenak diru-laguntzei lehentasuna emateko euren eskaerak jasotzen ditu, maileguak erabiltzeagatik zor publikoa handitu ez dadin.

MFPri dagokionez, ohiko banaketa-lerroak honako hauei buruzkoak dira nagusiki: (i) aurrekontuaren tamaina, (ii) zergadun garbien ekarpenei zuzenketak eta (iii) eremu politiko ezberdinen arteko aurrekontu-banaketa (tradizionalak versus "modernoak"). Beste gai delikatu batzuk dira mailegu eta diru-laguntzetan aplikatzen diren baldintzak, bai eta baliabide propio berriak sartzeari ere.

### **Europako Batzordearen proposamenen balorazioak**

Covid 19aren krisiak eskualde-mailan izan duen inpaktuan asimetria handiak antzematen diren arren, ikusten da Batzordea proposatzen ari den laguntza-tresnek gero eta estatu ikuspegi bakar handiagoa dutela.

Bai Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak, bai REACT-EUk eta Bidezko Trantsizioko Funtsak estatu mailako banaketa-adierazleak finkatzen dituzte. Hori bereziki deigarria da kohesio-politikako funtsen kasuan (REACT-EU), tradizionalki eskualde-garapenera eta EBko eskualdeen arteko konbergentziara bideratuak.

Europako Batzordea azkar jarduteko premia eta beharra ulertzekoa bada ere, nolana ere, EB mailako neurri guztiak birzentralizatzerara bideratzea saihestu beharko litzateke; izan ere, aurrean dugun krisiak areagotu egingo ditu eskualde-mailan dauden desberdintasunak.